

## **ANOETAKO MINIESTADIOA BIRMOLDATZEKO PROIEKTUAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA**

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du Anoetako estadio txikia birmoldatzeko proiektuan inguruan, osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko otsailaren 13ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Donostiako Anoeta estadio txikia birmoldatzeko obren exekuzio proiektua idazteko zerbitzuaren kontratua Sestra S.L enpresari esleitu zitzaion. Akordio hau Anoeta Kiroldegiaren kontseiluan gauzatu zen 2016ko martxoaren 16an. Esleipenean, egikaritzeko lau hilabeteko epea zuen enpresak. Exekuzio proiektua ez da oraindik aurkeztu kontseiluan, ordea.

Otsaileko batzordean, zinegotzi-ordezkariek gai honekin buru-belarri ari zela esan zuen, baina oraindik ere exekuzio proiektua ez da gauzatu.

Bien bitartean, Anoetako estadioa berritzeko, dagoeneko zero lotea esleitu da. Anoetako obra guztien ikuspegia eta kronogramak izateko, estadio txikiaren exekuzio proiektua beharrezkoa da, eremuak plangintza bat izan dezan

Honegatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

### **KONTROL MOZIOA**

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio udal taldeei lehenbailehen aurkez diezaiela estadio txikia birmoldatzeko exekuzio proiektua, eta eremu osorako plangintza-kronograma bat landu dezala.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

Josu Mirena Ruiz Martin  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**